

7/2015 UDALEKO OSOKO BILKURA

2015EKO UZTAILAREN 27AN IZANDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

BERTARATUTAKOAK:

ALKATEA:

Pedro M^a Estanga Lasa

ZINEGOTZIAK:

Miren Josune Eizmendi Manterola

Aratz Luisa Urkola

Izaskun Jáuregui Saizar

Bakarne Olano Manzano

Kepa De la Iglesia Sánchez

Iñaki Merino Castro

Francisco Berbel Perez

Jose Ignacio Otermin Garmendia

IDAZKARIA:

Nekane Agirresarobe Etxeberria

Anoeta Hiriko udaletxean, 2015eko uztailaren 27an arratsaldeko zazpiak direla, eta ondorio horretarako deia egin ondoren, Udaleko Ohiko Osoko Bilkura antolatu da, Pedro M^a Estanga Lasa Alkate jaunaren Lehendakaritzapean eta alboan adierazitako zinegotziekin; eta neu, Nekane Agirresarobe Etxeberria andrea, Idazkari lanetan aritu naiz.

1.- 2015EKO UZTAILAREN 6EAN OSPATURIKO AKTA ONESTEKO PROPOSAMENA.

Alkate jaunak adierazten du 2015eko uztailaren 6ean ospaturiko bilkuran Jose Ignacio Otermin Garmendia zinegotzia ez zela bertaratu; hala ere, onartzeko aurkezten den aktan bertaratutakoen artean azaltzen da. Beraz, zuzenketa eskatzen du.

Gainontzeko aktaren zati guztiak aho batez onesten dira.

2.- EBAZPENEN BERRI EMATEA, 2015EKO EKAINAREN 15ETIK UZTAILAREN 15A BITARTE, 275 ZENBAKITIK 348 ZENBAKIRA, HAU BARNE.

EAJ talde politikoko bozeramailea den Kepa De la Iglesias Sanchez jaunak , 309 ebazpenari buruz “Udaleku Irekiak” adierazten du Itxaso Estanga kontratatu dela eta galdetzen du ea alkatearen familiarra den, honek alaba duela erantzuten du.

De la Iglesia jaunak galdetzen du ea kontratuak lehiaketa publikoa bidez egin diren; horrela bada kontratuak aurrera eramateko ez legoke arazorik baina korporakideen familikorik ezingo lirateke kontratatu kontratazio zuzen baten bidez.

Alkate jaunak erantzuten du horrelako kontratuak ez direla inoiz lehiaketa publiko bidez gauzatu. Kontratuak beste urtetan egin ohi diren bezala, prozedura bera jarraituz egin direla, hau da, bando eta prentsa bidez begiraleen beharra adierazi eta udaletxean izena emateko epe bat jarri. Aurten beste urtetan baino partaide gehiago izan dira. Aurkeztutako begirale zerrendatik denak bi azkenekoak ezik hautatuak izan ziren, bi hauek bere alaba eta iloba izanik. Azken bi hauekin zozketa egin zen eta bere alaba aukeratua izan zen.

Era berean, alkateak dio espedientean bi txosten daudela, bata AOTarena eta bestea Idazkari kontu-hartzailearena. Bera pertsonalki, EUDELekin ere harremanetan jarri zen gaia azalduz, begirale kontratazio bat batzuz bete hamar eguneko eperako. Erantzuna izan zen jurisprudentzia badagoela gai honetan, bi Bizkaian, eta bando eta prentsan iragarki bidez gauzatzen bazen nahikoa zela kontratazioa legearen barnean izateko

Eztabaida luze baten ondoren, Alkate jaunak adierazten du Pertsonal batzordean aztertuko direla legalki kontratatzeko aukera ezberdinak.

2015eko ekainaren 15etik uztailaren 15a bitarte, 275 zenbakitik 348 zenbakira biak barne, bitartean izaniko ebazpenen berri ematen du alkate jaunak, Korporakideek jakinaren gain geratuz.

3.- ANOETAKO HERRI IKASTOLAKO DIRU EKARPENA

Anoetako Herri Ikastolak dokumentazioa aurkeztu du, 2013-14 ikasturteko 2 urteko hurrei eskaintako asistentzia finantzatzeko diru laguntza eskatzen duena, eta jasotako dokumentazioan aipatzen du ikasturtea 75.194,14 euroko emaitza negatiboarekin bukatu dutela.

Idazkari kontu-hartzaileak txostena egin du eta bertan azaldu du, besteak beste, likidazio hau:

2013-2014 IKASTURTEKO ANOETAKO IKASTOLAREN LIKIDAZIOA

GASTUAK 2 URTEKO GELA

Pertsonal gastuak	2013-14 ikasturtea	69.680,34
Ikastola osoko hornidurak (27.354,26 x %5,88)		1.608,43
Ikastolako garbiketa (29.088,46 x %5,88)		1.710,40
Irakasleen eta zentroaren gastuak		72.999,17

Maileguaren amortizazioa (33.952,60 x %33,33), lau hiruhileko	2014. urtea	11.316,40
Jangela: menuak + monitoreak	2013-2014 ikasturtea	6.628,80
GASTUAK GUZTIRA		90.944,37

SARRERAK

Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza	23 ikasle	30.563,93
Kuotak (23 haur)	2013-2014 ikasturtea	8.096,00
Jangelako kuotak (2 haur)		2.832,00
SARRERAK GUZTIRA		41.491,93

DEFIZITA - 49.452,44

EAJ talde politikoko bozeramailea den Kepa De la Iglesia Sánchez jaunak galdetzen du ea badagoen aukerarik urtero Ikastolari diru laguntza bat eman ordez zenbateko zehatz bat ematea.

Alkate jaunak erantzuten du bera ere iritzi berdinekoa dela eta galdetzen dio idazkari kontu-hartzaileari ba ote dagoen aukerarik zenbateko bat onartzea zenbait urtetarako.

Idazkari kontu-hartzaileak adierazten du urtero diru laguntza eskatu ordez hitzarmen baten bidez egin daitekeela, adibidez legealdi honetarako (2015-19); hitzarmen hau indarrean dagoen araudiaren barnean onestu beharko litzatekelarik.

Eztabaida luze baten ondoren, alkate jaunak idazkari kontu-hartzailearen txostena bozketara eramaten du, partaideek aho batez onestuz ondorengo terminoetan:

Lehena.- Anoetako Herri Ikastolari 49.452,44 euroko diru laguntza ematea, 2013/14 ikasturteko 2 urteko gelako gastuak eta jangelaren erabilera (menua+monitoriak) finantzatzeko.

Bigarrena.- Ordainketak hiru zatitan gauzatzea:

- a. 1. zatia: diru laguntzaren %50a abuztuko lehen hamabostaldian, hau da, 24.726,44 euro.
- b. 2 eta 3. zatia: 12.363,00 euroko bi zati berdinetan, Udalak Foru Aldundiarengatik UFFF gisa jasotako 3 eta 4 hiruhilabeteko sarreraren arabera.

Hirugarrena.- Puntu honetan onetsi den diru laguntza zuzenaren akordioa, 38/2003, Diru laguntza orokorren legearen 18.2 artikulua aplikatuz, Gipuzkoako Boletin Ofizialean argitaratzea.

4.- GALDE – ERREGUAK

EAJ talde politikoko bozeramailea den Kepa De la Iglesia Sanchez jaunak adierazten du, 2015 uztailaren 16ko dataz idazkari kontu-hartzaileak utzitako dokumentazioan, hau da, kontuen egoera eta altxortegian gerakinak, eta konkretuki aurtengo aurrekontu orokorra luzapenari buruz, ikusten da VI kapituluan “Inbertsio Errealak” gastu eta sarrerak izan direla. Kapitulu hau ezin da luzatu. Beraz, aurtengo ekitaldirako aurrekontua onesteko beharra adierazten du.

Alkate jaunak erantzuten dio irailean zehar ogasun batzorde bat egingo dela aurrekontua onesteko data jarri ahal izateko.

Eta beste aztergairik ezean, Alkate Jaunak amaitutzat eman du bilkura, iluntzekoz ortziak hogeit gutxi direnean; guzti honetaz, nik Idazkariak, fede ematen dudalarik.